

Adierazpena

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, aukera ona dugu omenaldia egiteko munduko emakume guztiei, batzuetan beren bizitzak arriskuan jarrita ere, euren eskubideak lortu eta defendatzeko borrokan ibili diren eta dabiltzan emakume guztiei. Egokiera ona da, baita ere, feminismoa zer den aitortzeko: kultura eta filosofia bat, gizateria osoarentzat beharrezkoak diren balioetan oinarritzen dena. Berdintasunak pertsona guztien autonomia garatzen laguntzen du, elkartasunean oinarritutako balioak indartzen ditu, parekoen arteko hartu-emanak sustatzen ditu, eta demokrazia hobetzen laguntzen du. Berdintasuna giza eskubide bat da, jendarte osoari on egiten dion eskubidea.

Orain arteko lorpenak ospatzeko eguna ere bada gaurkoa. Egindako ibilbideareh erakusgarri da Eusko Legebiltzarreko jarlekuetan emakumeen eta gizonen artean dagoen oreka. Ospatzekoa da, halaber, 2005ean Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko 4/2005 Legea onartu izana; izan ere, lege hori mugarri izan da, eta, oreka hori lortzeko, laguntza handia.

Iritzi publikoari dei egiteko eguna ere badugu, aldarrikatzeko eguna, zeren eta aurrerabide sakonak lortu baditugu ere, oraindik ere luzea da emakumeen eta gizonen artean berdintasun eraginkorra lortzeko bidea, eta ez da, ez, sufrimendurik gabekoa izango. Berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzea erronka da oraindik ere.

Baina, horretaz gain, batez ere konpromisoa hartzeko eguna da. Horregatik, gure ustea berretsi nahi dugu: irmoki uste dugu jarraitu egin behar dugula ekintzak bultzatzen, emakumeen eta gizonen artean berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko behar diren beste ekintza bultzatzen, horrela lagunduko baitugu gizarte eraginkor, solidario eta demokratiko bat eraikitzen.

Guztiontzat eskubide berberak lortzeko bidean aurrera egiteko, beharrezkoa da elkarlana, etenik gabe elkarrekin lan egitea gizarteak, emakumeek eta gizonek, gizarte zibilak, alderdi politikoek eta botere publikoek. Horregatik nahi genuke adierazpen hau planteamendu ideologikoetatik harago joatea, inguruabar sozial eta ekonomikoetatik harago, baita une jakin batetik harago ere, hots, martxotik harago. Izan bedi jarrera irmoa eta iraunkorra, izan bedi gure ekintzen ardatza urteko egun guztietan. Justizia sozialak hala eskatzen duelako, eta gizarte osoaren onerako izango delako.

